

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanei dagokienez dugun helburu nagusia harreman horiek egonkorrak izatea eta bezeroek gure enpresan eta produktuetan konfiantza izan dezaten bermatzea da.

Gure webgune propioa izateko asmoa dugu, guztiontzat erraza eta eskuragarria dena, non informazio guztia modu argi batean aurkeztuko den. Horrez gain, gure produktua El Corte Inglés edo MediaMarkt bezalako enpresa handiagoetan ere salduko da, eta horietako bakoitzean bezeroaren edozein arazo edo galdera mota konponduko duen langile espezializatu bat egongo da.

Gure produktuak prezio bera du guztiontzat, osagarriak barne daudelako. Egia da ile-lehorgailuetan ohikoa ez den euskarria nahasgarria izan daitekeela, beraz, produktuaren aurkezpen astean hura erabiltzeko zein erraza eta eroso den erakusteko jendea izango dugu

Azkenik, bezeroak ile-lehorgailua erosteaz aparte hura aurrera ateratzeko ere parte hartzen dutela ziurtatzeko, azkenengo bertsioa merkaturatu aurretik, elkarriketak egin beharko dira sailtasun desberdinak dituzten bezero ezberdinekin, horientzat egokitzeko eta produktua erabiltzeko aukera izan ditzaten.